

Epopoia albaniarra

Javier Rojo

"H. dossierra"

Ismail Kadare

euskaratzailea: Juan Mari Arzallus / Antton Olano

Ibalzabal, 1998

Ismail Kadare Albaniako idazlea da; hortaz, niri dagokidanez behintzat, literatura zeharo ezezagun baten ordezkaria. Gauzak horrela, jakinmina izan dut bidelagun liburu honen irakurketan. H. dossierra-n idazleak kontatzen du nola irlandar batzuk epopeiaren aztarnen bila joaten diren Albaniara, Homerori buruzko lan bat egiteko asmoz. Anekdota horrek aukera ematen dio idazleari bere herri bereziaz hitz egiteko. Serbiarren eta albaniarren arteko gatazkaz mintzatuko zaigu. Albanian zegoen susmogi-roa ere agertuko zaigu. Horrelako giroan agintariak dena dute susmagai eta espioi gixajo batzuk ikusiko ditugu hemendik eta handik ikerketa bitxiak egiten irlandarren asmo izkutuak jakin nahirik. Bizitza tradizionalaren eta mundu modernoaren kontrajarpena ere ikusiko dugu nobelan. Izan ere, gertaerak 1935. urte aldera datatu ahal badira ere, irakurleak ahalegin handiak egin behar ditu XIX. mendean ez dagoela pentsatzeko. Noizean behingo aipamenek (autoa, telefonoa edo magnetofonoa) gogoratuko diote noiz gertatzen diren han kontatzen direnak. Hau guztia islatzeko, idazleak trajikomediaren tonua aukeratu du, hau da, umore mingotsarena, eta ondorioz nobela interesgarria eta aberatsa, ñabardura ugariz jantzia sortzea lortu du.

El Correo, 1999-01-27